

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 6024

*104/2024 EBAZPENA, abenduaren 26koa, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez erabaki hau argitaratzen baita: Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren organismo autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioari zerbitzu laguntzaileen 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena eta Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionalean eta sektore publikoko entitate instrumentaletan deialdi publiko bidez beteko diren plazak.*

Gobernu Kontseiluak, 2024ko abenduaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau onartu du: Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren organismo autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioari zerbitzu laguntzaileen 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena eta Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionalean eta sektore publikoko entitate instrumentaletan deialdi publiko bidez beteko diren plazak. Beraz, behar bezalako publikotasuna emateko, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea erabaki hau: Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eta haren organismo autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioari zerbitzu laguntzaileen 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena eta Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu programara biltzen dituen Ertzaintzan sartzeko plazak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionalean eta sektore publikoko entitate instrumentaletan deialdi publiko bidez beteko diren plazak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 26a.

Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCIA DE VICUÑA.

2024ko abenduaren 31, asteartea

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO  
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN ABENDUAREN 26KO 104/2024  
EBAZPENARENA

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN  
ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOEN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
SEGURTASUN ADMINISTRAZIOKO ZERBITZU LAGUNTZAILEEN 2024KO ENPLEGU  
PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONARTZEN DUENA ETA EUSKADIKO EKONOMIA ETA  
ENPLEGUA SUSPERTZEKO 2020-2024KO BERPIZTU PROGRAMARA BILTZEN  
DITUENA ERTZAINZAN SARTZEKO PLAZAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALEAN ETA SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATE  
INSTRUMENTALEAN DEIALDI PUBLIKO BIDEZ BETEKO DIREN PLAZAK

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.1 artikulua hau ezartzen du: «Aurrekontu-esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu publikoaren eskaintza egin beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa-tresna erabili, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren».

Arau horretan ezarritakoa betetzeko, erabaki honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen enplegu publikoaren eskaintza onartzen da. Aurrekontu-zuzkidura duten plaza hutsak sartu dira eskaintza horretan; izan ere, iritzi zaio ezin direla geroago betetzeko utzi, plaza horiek atxikita dauden zerbitzu publikoek funtzionamendu egokia izateko.

Eskaintzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako plazak 420 dira guztira, eta karrerako funtzionarioei dagozkie.

Hezkuntza Administrazioari dagokionez, 1.046 plazako enplegu publikoaren eskaintza onartu da. Horietatik, 931 plaza zenbait irakasle-kidegori dagozkie, eta, 115 plaza, berriz, lan-kontratudunentzat dira.

Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen enplegu publikoaren eskaintzak 23 plaza ditu.

Segurtasun Sailak Ertzaintzaren kidegoko 525 agenteren deialdia egiteko proposamenaren berri eman du.

Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sektore publikoko entitate instrumentalek jakinarazi dute 1.935 plaza eskainiko dituztela deialdi publikoan.

Enplegu publikoaren eskaintza horien helburua da enplegu publikoaren sektorea enplegatzaile eraginkor eta efiziente gisa sendotzea, kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzen duen enplegatzailea izateko; horregatik, guztira 3.949 plaza sartuko dira enplegu publikoko plaza gisa Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programan.

Horrenbestez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta bat etorritz Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 17.d) artikuluaekin eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.I) artikuluaekin, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du 2024ko abenduaren 17ko bileran,

## ERABAKIA:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen I. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen II. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileen 2024ko enplegu publikoaren eskaintza onartzea. Erabaki honen III. eranskinean zehaztutako plaza hutsak eskaintzen dira.

Laugarrena.– Kasuan kasuko deialdietan zehaztuko dira eskainitako plazak lortzeko prozedurak eta betekizunak, bai eta desgaitasuna dutenentzat gordetako plazen banaketa ere.

Bosgarrena.– Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programara biltzea Ertzaintzako agenteen kategorian sartzeko plazak, zeinak IV. eranskinean adierazten baitira.

Seigarrena.– Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko 2020-2024ko Berpiztu Programan sartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio instituzionaleko zuzenbide pribatuko ente publikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate instrumentaletan deialdi publikoaren xede izango diren plazak, zeinak V. eranskinean jasotzen baitira.

Seigarrena.– Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta egoitza elektronikoan argitaratu dadila agintzea.

2024ko abenduaren 31, asteartea

## I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA HAREN  
ORGANISMO AUTONOMOEN ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

## FUNTZIONARIOAK

## A taldea

## – A1 azpitaldea

## Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa

– Azpiegituretako Eskala	1
--------------------------	---

## Espetxe Administrazioko Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa

– Espetxe Administrazioko Eskala Juridikoa	11
– Espetxe Administrazioko Psikologiako Eskala	10

## – A2 azpitaldea

## Espetxe Administrazioko Kidego Teknikoa

– Espetxe Administrazioko Gizarte Laneko Eskala	11
– Espetxe Administrazioko Gizarte Hezkuntzako Eskala	16
– Espetxe Administrazioko Kudeaketa Bereziko Eskala	11

## C taldea

## – C1 eta C2 azpitaldeak

– Administrarien Kidegoko Administrarien Eskala eta Administrari Laguntzaileen Kidegoko Administrari Laguntzaileen Eskala.	70
--	----

C1 eta C2 azpitaldeetan, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez zehaztuko da zer kidego eta eskalatako plazak eskainiko diren batera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorretako behin betiko esleipenak egin ondoren.

## – C1 azpitaldea

## Espetxe Administrazioko Zigorak Betearazteko Laguntzaileen Kidegoa

– Espetxe Administrazioko Zigorak Betearazteko Laguntzaileen Eskala	260
---	-----

## E taldea

– Laguntzako Langileen Talde Profesionala	30
---	----

## II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOAREN ENPLEGU  
PUBLIKOAREN ESKAINTZA

## A) Funtzionarioak.

Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa	438
Maisu-maistren Kidegoa	493

## B) Langile lan-kontratudunak

Sukaldeko langileak	18
Garbitzaileak	16
Hezkuntza-laguntzako espezialistak	76
Zeinu-hizkuntzako interpreteak	5

## III. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEGURTASUN ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZU  
LAGUNTZAILEEN ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Langile lan-kontratudunak	23
---------------------------	----

Segurtasuneko sailburuaren agindu bidez zehaztuko da zer lan-kategoria eskainiko diren batera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Segurtasun Administrazioaren zerbitzu laguntzaileetako langile lan-kontratudun finkoen arteko barne-lehiaketa behin betiko esleitu ondoren.

2024ko abenduaren 31, asteartea

## IV. ERANSKINA

## ERTZAINZAN ESKAINTZEN DEN PLAZA KOPURUA

Ertzaintzako agenteak	525
-----------------------	-----

2024ko abenduaren 31, asteartea

## V. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALEKO ZUZENBIDE  
PRIBATUKO ENTE PUBLIKOETAKO ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE  
PUBLIKOKO ENTITATE INSTRUMENTALETAKO PLAZA KOPURUA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Estatutupeko langile finkoak	1.896
Euskalmet	4
Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE)	25
Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA)	2
Euskadiko Orkestra SA	8